

2024 ARBIZUKO UDALA

ZERBITZU ANITZETAKO LANGILEA KONTRATATZEKO DEIALDIA

Deialdia, langabeak aldi baterako kontratatzeko, hautaproba baten bidez zerbitzu anitzetako langile bat kontratatzea da deialdiaren xedea.

OINARRIAK

1.- Deialdiaren xedea:

1.1. Hautaprobeen bidez izangai zerrenda bat osatzeko deialdia iragartzen da, Arbizuko Udalean aldi baterako kontratazio bitartez zerbitzu anitzetako langile lanpostuaren beharrak betetzeko lan-poltsa osatzeko, langabeak interes orokorreko obra eta zerbitzua egiteko kontratatzeko deialdiaren arabera.

1.2. Izendapenarekin batera, izendatua aldi baterako langile bihurtuko da eta Gizarte Segurantzaren araubidean afiliatu eta alta emanen zaio.

1.3.-Lanpostuak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen D mailari dagozkion lansariak izanen ditu, gehi une bakoitzean erabakiko diren osagarriak.

1.4. Lanaldia. Zerbitzuaren beharretara moldatuko da, eta kontratazio bakoitza egiten denean erabakiko da. Baliteke goizez, arratsaldez edota lanaldi zatitua izatea, zerbitzuen beharretara egokituko da eta organo eskudunek edozein momentutan aldatu ahal izanen dute, bai kontratazioaren hasieran edota baita kontratazioak irauten duen bitartean ere. Kontratuak 6 hilabeteko iraupena izanen du luzatzeko aukerarik gabe.

1.7. Lanpostuak euskarazko nahitaezko hizkuntza-eskakizun hau du: **B1 maila (ahozkoa)**

1.6.- Haren eginkizunak mailari eta kategoriari dagozkionak izango dira:

a) Arbizuko eskola publikoa mantendu eta kontserbatzeko obrak.

b) Bere eginkizunekin zerikusia duen makineria erabiltzea.

c) Udal-artxiboko eta udal-liburutegiko materiala antolatzea eta lekuz aldatzea.

d) Ezarritako lana eta zerbitzuaren beharrak noizbehinka eta ordutegi-malgutasunaren arabera betetzeko eskakizunetara egokitzea.

e) Mendiko lanak: egur loteak markatu, bideak eta arekak garbitu, udal-kontsumorako egurra prestatu, etab.

f) Bere kategoriara egokitutako udal-mailako beste edozein eginkizun.

2.- Izangaiek bete beharreko baldintzak.

Izangaiek, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako herritarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu batekoa, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsita nazioarteko itunak direla medio.

Orobat, parte har dezakete espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu etako herritarren ezkontideek, edo aipatu nazioarteko itunek ukitutako estatu etako herritarren ezkontideek, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, haien kontura biziz gero.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gaitutua ez izatea.

c) Eskola Graduatuko titulua edo horien baliokidea izatea, edo eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean titulu hori eskuratzeko moduan egotea. Atzerrian lorturiko tituluak izanez gero, aipatu epea betetzen den egunean, haren homologazioa frogatzen duen agiriaren jabe izatea.

d) Euskarazko jakite-maila hau edukitzea: B1 ahozkoan. Titulurik eduki ezean, izangaiek proba bat gaitutu beharko du hizkuntz gaitasun nahikoa duela frogatzeko. Euskara probaren data aurrerago jakinaraziko zaie hautagaiei.

e) Lanpostuaren eginkizunetan aritzeko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

f) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia ez izatea.

g) Langabezian egotea eta egoera hori egiaztatzen duten agiriak aurkeztea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko aitorpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, beren estatuko Funtzio Publikoan sartzea galarazten dien diziplina-zehapenik edo kondena penalik ez dutela adierazteko.

Baldintza horiek guztiak agiri bidez frogatu beharko dituzte hautatzen diren eta aldi baterako kontrataziorako deia jasotzen duten izangaiek, adierazten zaien unean, kontratua formalizatu aurretik.

Aski justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan salbu, aipatutako agiri horiek aurkezten ez dituztenak ezin izanen dira kontratatu, eta ordura arteko egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, euren eskabidearen faltsukeria dela eta legokiekeen erantzun beharra galarazi gabe.

Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira aurreko baldintzak, eta hautapen prozedura aldian eta kontratazioak iraun bitartean beharko dira bete.

3.-Eskabideak.

Deialdian parte hartzeko eskabideak aurkeztu beharko dira Altsasuko Nafar lansare bulegoan, eta bertan eskabideak aurkezteko emandako epea bukatzerako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek.

4. Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea: **2024ko maiatzaren 16a, 14:00ak arte.**

5.- Epaimahai kalifikatzailea.

5.1. Kide hauek izanen dira epaimahaiko kideak:

Lehendakaria: Francisco Javier Razkin Flores, Arbizuko alkatea. Ordezkoa: izendatzen duena.

1. bokala: Cederna-Garalurreko langile bat.

2. bokala. Manuel Leiza Araña, Udaletxeko langilea. Ordezkoa: izendatzen duena.

3.bokala. Maitane Intxaurreaga Uribarri, Udaletxeko zinegotzia. Ordezkoa: Mikel Berastegui Uncila, Udaletxeko zinegotzia.

Idazkaria: Arbizuko udal idazkaria/ Ordezkoa: Miren Pereda Razkin, Etxarriko Udal idazkaria.

5.2. Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote eta lehendakariari hala jakinarazi, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean horretarako aurreikusiak dauden arrazoiak suertatzen direnean. Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute mahaikideak errefusatzeari, arrazoi horietako bat izaten denean. Epaimahaia aldatzen bada, mahaikideek parte ez hartzeko eta haiek errefusatzeko lege ezarritako kasuak direla-eta, jakinarazi egingen da, izangai onartu eta baztertuen zerrendekin batera.

5.3. Hautaprobak hasi aurretik eratu beharko da epaimahaia. Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengo osoa gutxienez bildu gabe. Halaber, epaimahaiaren eraketak eta jardunak balio izateko, mahaiburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute.

5.4. Deialdiko oinarriak ulertu eta aplikatzerakoan sortzen diren afera guztiak gehiengoz erabakiko ditu epaimahaiak.

5.5. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza eska dezake probarako. Aipatu aholkulariak beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko eta haietan oinarriturik bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

6.- Oposizioa (gehienez 100 puntu)- Proba Ariketa bakarria egin beharko da

a) Ariketa bakarria: Teorikoa: Idatzizko proba honetan, galdera sorta bati erantzun beharko zaio: erantzuteko zenbait aukera emanen dira, baina horietariko bakarria izanen

da baliozkoa. MAD argitaletxearen gai-zerrendako gai ei buruzko galderak izanen dira (izenburua: NIVEL E de la Administración de la Comunidad Foral). 2017ko deialdia (22.NAOn argitaratu zen, 2017ko otsailaren 22an).

GAI-ZERRENDA. 1.gaia. Elektrizitateko, igeltserotzako eta pinturako oinarritzko hastapenak.2. gaia.–Zur eta metal arotzeriako oinarritzko hastapenak. Lorezaintzako oinarritzko hastapenak. 3. gaia.–Iturgintzako, berokuntzako eta saneamenduko eta oinarritzko mekanikako oinarritzko hastapenak.

7.- Hautaprobak gainditzen dituztenen zerrenda eta lanean hasteko deia.

7.1. Proben kalifikazioa buruturik, epaimahaiak Arbizuko Udaleko iragarki oholean eta probak egin diren tokian jendaurrean ipiniko du probak gainditzen dituzten izangaiei zerrenda. Zerrenda hori lortutako azken puntuazioaren hurrenkeraren arabera izanen da, eta alkate udalburuari helaraziko dio, baita hautapen prozesuaren espediente osoa ere, ontzat eman dezan. Berdinketarik izanez gero, zozketa egingo da.

7.2. Gainditu duten izangaiei Arbizuko Udalean gertatzen diren premien arabera deitu ahal izanen zaie, deialdi honetako oinarrietan ezarritakoari eta aplikatzekoak diren gainerako arau ei jarraituz.

8.-Errekurtsoak. Deialdi honen, oinarrien eta aplikatzeko egintzen aurka ondoko errekurtsoetako bat aurkez daiteke, hautara:

a) Berraztertze ko errekurtsoa, egintza gauzatu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

B) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurtsoaren xedeko egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik hasita.

Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

Arbizu, 2024ko apirilaren 30a

Francisco Javier Razkin Flores.- Alkate-lehendakaria